Rubí (Barcelona): Picarona, 2021

ISBN: 978-84-9145-421-2



Núñez, Marisa

***Hiru hartz***

Ilustratzailea: Minako Chiba

Itzultzailea: Ainhoa Mendiluze

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2021 (Txo!)

ISBN: 978-84-18252-53-2

Papini, Arianna

***Nor izan nahi zenuke?***

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-234-2

Peacock, Lou

***Xarlik badaki aukeratzen***

Ilustratzailea: Nicola Slater

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021

ISBN: 978-84-9106-990-4

Ruifernández, Leticia

***Bi ahizpa – Two sisters***

Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta eta Ellen Duthie

Bilbo: A fin de cuentos, 2021

ISBN: 978-84-123181-1-1

Samitier, Raquel

***Gorka kaputz eta bere zomorroak***

Itzultzailea: Etor Iraola

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-61-4

Smallman, Steve

***Afaltzera etorri zen krokodiloa***

Ilustratzailea: Joëlle Dreidemy

Itzultzailea: Jone Hualde

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-49-2

Teckentrup, Britta

***Oroitzapenen zuhaitza***

Itzultzailea: Maialen Mujika

Madrid: NubeOcho, 2021

ISBN: 978-84-18133-75-6

## **6 urtetik aurrera**

Alemagna, Beatrice

### ***Bost Akastunak***

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2021

ISBN: 978-84-18252-73-0

Arias Domínguez, Emilia

### ***Hanielleren txalupa***

Ilustratzailea: Cintia Martín

Itzultzailea: Uxoá Iñurrieta

Bilbo: A fin de cuentos, 2021

ISBN: 978-84-120914-9-6

Atxukarro, Bakarne; Zubialde, Izaskun

### ***Mari***

Ilustratzailea: Asun Egurza

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-63-8

Azpiazu Aduri, Ainara

### ***Basoan barna***

Donostia: Elkar, 2021

ISBN: 978-84-1360-086-4

Clemente Gómez, Juan

### ***Hortzik gabeko krokodiloa***

Ilustratzailea: Christian Inaraja

Itzultzailea: Xabier Olaso

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021 (Paper txoriak; 23)

ISBN: 978-84-9106-994-2

Grimm, Jacob; Grimm, Wilhelm

### ***Lau lagunak***

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-235-9

Lertxundi Esnal, Anjel

### ***Familia xelebrea***

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Donostia: Ikaselkar, 2021

ISBN: 978-84-18410-31-4

McKee, David

### ***Elmer Paseoan***

Itzultzailea: Antton Olano

Donostia: Elkar eta Igela, 2021

ISBN: 978-84-9109-592-7

Moore, Inga

**Altzearen liburubusa**

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021

ISBN: 978-84-1370-139-4

Ortega, Natacha

**Txoriak**

Ilustratzailea: Lucía Franco

Itzultzailea: Joseba Sarrionandia

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021

ISBN: 978-84-9172-212-0

Papatheodoulou, Antonis

**Arkara sartzeko ilaran**

Ilustratzailea: Iris Samartzi

Itzultzailea: Jone Irazu Garikano

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-213-7

Perez, Sébastien

**Maitemintzen al dira loreak?**

Ilustratzailea: Annelore Parot

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021 (Perrexiltxoren lorategia)

ISBN: 978-84-1370-135-6

Perez, Sébastien

**Nola egiten dute kaka zuhaitzek?**

Ilustratzailea: Annelore Parot

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021 (Perrexiltxoren lorategia)

ISBN: 978-84-1370-134-9

Perkin, Jayde

**Amatxoren jertsea**

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021

ISBN: 978-84-1370-126-4

Rubio, Antonio

**Sandia-gidaria**

Ilustratzailea: Emilio Urberuaga

Itzultzailea: Xabier Olaso

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-239-7

## **8 urtetik aurrera**

Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda

***Groau!***

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-62-1

-Antzerkia-

Atxaga, Bernardo

***Desioa***

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2021 (Mila gau; 12)

ISBN: 978-84-9172-254-0

Cantini, Barbara

***Ikarazko ezustekoa***

Itzultzailea: Mari Eli Ituarte Zarragoikoetxea

Bilbo: Mezulari, 2021 (Mortina; 06)

ISBN: 978-84-271-4651-8

Cantini, Barbara

***Puffy eta Brunilda. Magia pittin bat***

Itzultzailea: Aitor Arana

Bilbo: Mezulari, 2020 (Puffy eta Brunilda; 01)

ISBN: 978-84-271-4590-0

Flemming, Ian

***Chitty Chitty Bang Bang***

Ilustratzailea: Steve Antony

Itzultzailea: Amets Santxez Munain (Bakun S.L.)

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021

ISBN: 978-84-9106-991-1

García-Contreras, Nanen

***Bere baitara bildurik***

Itzultzailea: Itziar Diez de Ultzurrun Sagalà

Madrid: Bookolia, 2021

ISBN: 978-84-18284-18-2

Kaeme

***Gaztetasunaren iturria***

Ilustratzailea: Mikel Muro

Urnieta (Gipuzkoa): Harriet, 2021 (Galerna eta Kresala; 01)

ISBN: 978-84-123816-5-8

Kazabon, Antton

**Lurdes Iriondo**

Ilustratzailea: Jokin Mitxelena

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-59-1

Kinney, Jeff

**Rowley Jefferson superjatorraren historia izugarriak**

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021

ISBN: 978-84-9868-666-1

Larreategui, Yolanda

**Gurasoak tokatzen zaizkit**

Ilustratzailea: Amaia Nolla

Donostia: Erein, 2021 (Auskalo; 64)

ISBN: 978-84-9109-722-8

Martirena, Dani

**Amonaren kea**

Ilustratzailea: Ana Ibañez

Iruñea (Nafarroa): Nafarroako Gobernua, 2021

ISBN: 978-84-235-3604-7

Moreno, Eloy

**Mundua ulertzeko ipuinak**

Ilustratzailea: Pablo Zerda

Itzultzailea: Fernando Rey Escalera

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-54-6

Olaso, Xabier

**Esna irauteko ipuinak**

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-60-7

Smith, Heather

**Hirota jaunaren lorategiko telefono kabina**

Ilustratzailea: Rachel Wada

Itzultzailea: Uxoia Iñurrieta

Bilbo: A fin de cuentos, 2021

ISBN: 978-84-120914-7-2

## **10 urtetik aurrera**

Cid, Almudena

***Bi zaporeko mundu bat***

Ilustratzailea: Montse Martín

Itzultzailea: Mitxel Murua

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021 (Olympia; 03)

ISBN: 978-84-9868-645-6

Cid, Almudena

***Zinta gorria***

Ilustratzailea: Montse Martín

Itzultzailea: Mitxel Murua

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021 (Olympia; 04)

ISBN: 978-84-9868-653-1

Egaña, Arrate

***Mamuak eta bihotzak***

Ilustratzailea: Marimar Agirre

Donostia: Erein, 2021 (Klarisa eta K taldea; 03)

ISBN: 978-84-9109-709-9

Kinney, Jeff

***Izotz urtzaldia***

Itzultzailea: Miren Arratibel

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021 (Gizajo baten egunkaria; 13)

ISBN: 978-84-9868-655-5

Santiago, Roberto

***Sorgindutako gazteluaren misterioa***

Ilustratzailea: Enrique Lorenzo

Itzultzailea: Maitane Ugarte (Bakun S.L.)

Barakaldo (Bizkaia): Ikasmina, 2021 (Futboleroak; 06)

ISBN: 978-84-9855-837-1

## **12 urtetik aurrera**

Agirre, Katixa

***Amaia Lapitz eta festoseko diskoa***

Ilustratzailea: Alex Orbeo Ferreiro

Donostia: Elkar, 2021 (Amaia Lapitz; 03)

ISBN: 978-84-1360-098-7

Alonso, Manuel L.

***Beldurrik Gabe***

Itzultzailea: Iraitz Urkulo

Etxebarri (Bizkaia): Begiko, 2021

ISBN: 978-84-16839-52-0

Arretxe, Jon

***Trumoiaren alaba***

Donostia: Erein, 2021 (Perzebal; 42)

ISBN: 978-8-9109-649-8

Calo, Teresa

***Aurkituko zaitut***

Itzultzailea: Mixel Murua Irigoien

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021 (Erria Txikota!)

ISBN: 978-84-9868-705-7

Gazzaniga, Riccardo

***Izarrak ukitu genituen***

Ilustratzailea: Piero Macola

Itzultzailea: Lurdes Auzmendi Aierbe

Bilbo: Desclée de Brouwer, 2021

ISBN: 978-84-330-3152-5

Kazabon, Antton

***Ezberdina bezain gozoa***

Ilustratzailea: Ima Mendiola

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021 (Ekin; 50)

ISBN: 978-84-1370-179-0

## **14 urtetik aurrera**

Arostegi, Gaizka

***Antipodak***

Amorebieta-Etxano (Bizkaia): Ibaizabal, 2021 (Ekin; 49)

ISBN: 978-84-1370-178-3

Castro, Francisco

***Barkuen hilerria***

Itzultzailea: Mitxel Murua

Irun (Gipuzkoa): Alberdania, 2021 (Ostiral saila; 45)

ISBN: 978-84-9868-673-9

Iguaran Barandiaran, Oihana

***Hormak***

Donostia: Elkar, 2021 (Traola; 03)

ISBN: 978-84-1360-058-1

Mintegi Larraza, Migel A.

***Bi abentura eta amodio bat***

Donostia: Alai, 2021 (Ganbara)

ISBN: 978-84-122916-3-6

Santos, Care

***Gezurra***

Itzultzailea: Miren Agur Meabe

Barakaldo (Bizkaia): Giltza, 2021 (Periskopia; 13)

ISBN: 978-84-8378-572-0



## Liburu oso gomendagarriak

### 2 urtetik aurrera

Odriozola, Elena

**Arrautza**

Donostia: Ediciones Modernas El Embudo, 2021

ISBN: 978-84-1224-752-7

El Embudo argitaletxearen «Soinutxo hori?» saila ahozko tradiziotik jasotako haur-abestiak argitaratzen hasi da. Kasu honetan, *Arrautza* izenburupean, hatzak mugitzeko arrautzaren esku-joko ezaguna jaso dute.

Ahozkotasunean jatorria duten abesti hauek oso baliagarriak dira haurren eta helduaren arteko lotura afektiboa sendotzeko. Liburua goitik behera irakurri behar dugu, eta orrialdea pasatzen dugunean eskuaren hurrengo hatza ikusiko dugu. Nork ez du gogoan hatzen istorioa, «hatz txikiak zotzak bildu... eta azkenak, potoloenak, den-dena...».

Irakurle helduak emango dio testuari tonua eta emozioa, eta haurarekin partekatutako irakurketak une gozagarriak sorraraziko ditu. Irakurtzeko, jolasteko eta abesteko liburu aproposa.

Odriozolak estilo propioa eta arrakastatsua garatu du bere ibilbidean. Apaindurarik gabeko estilo eskematikoa eta minimalista du gustuko. Adibidez, azalean agertzen den arrautza margotzeko, kolore ezberdineko hiru zirkulu besterik ez ditu marraztu; eta, horrela, zartaginean dagoen arrautza frijitua irudikatu du, maisuki.

Proposamen plastiko zaindua, mimo handiarekin egindakoa, eta eskuz sortutako lana balioan jartzen duena. Kartoizko liburu gogorra, oraindik irakurtzen ez dutenentzat esku artean behin eta berriro erabiltzeko oso egokia.

Ezin dugu galdu ahozkotasunetik datorren ondarea. Kalitatezko liburu batean jasotzerakoan, balio erantsia emateaz gain, etorkizuneko belaunaldietan irauteko beste urrats bat egiten dugu, zalantzarik gabe.

## **4 urtetik aurrera**

Ahlberg, Janet; Ahlberg, Allan

### ***Eskeleto barregarriak***

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021 (Amets egiteko liburuak)

ISBN: 978-84-9172-159-8

Ipuintxo xume eta dibertigarri honek 1980. urtean ezagutu zuen lehen argitalpena Britainia Handian, Janeth eta Allan Ahlberg idazle eta ilustratzaile ingelesen eskutik. Oraingoan, euskarazko edizio txukunean, Pamiela eta Kalandraka argitaletxeek eskeleto barregarri haien pasadizo xelebreak ekarriko dizkigute haur zein helduen gozamenerako. Liburu hau bereziki partekatzekoa da, haurrarekin batera gozatzekoa, ahozkotasanak eta erritmoak berebiziko garrantzia baitute. Ipuina errepikapenean oinarritzen da: «muino ilun-ilun batean, herri ilun-ilun bat zegoen. Herri ilun-ilunean kale ilun-ilun bat zegoen...». Horrela, iluntasunak eta beldurrak agintzen dute ipuinaren hasieran; baina, bat-batean, gure eskeleto xelebreekin egingo dugu topo, eta alderdi ilunak umorearekin eta alde jostagarriarekin egingo du talka. Eta hau da liburu honen beste bereizgarri nabarmenetariko bat: alderdi kontrajarriak uztartzeko duen abildadea: beldurra eta umorea, kolore ilunak eta biziak, eskeletoak, jolasak eta abestiak, besteak beste. Aipatzekoa da ipuinak darabilen komikiaren egitura ere, arintasunaren eta bizitasunaren mesedetan. Ezaguna da haurrek eta gaztetxoek beldurrarekiko eta eskeletoen irudiekiko duten miresmen- eta harridura-ahalmena, eta, ezbairik gabe, aukera paregabea izango dute eskeleto barregarri horien xelebrekeriekin gozatzeko. Ezin alde batera utzi Manu Lopez Gaseniren itzulpen egokia.

Edozein une izan daiteke egokia liburu gozagarri batean murgiltzeko; baina hemen gaueko aldarte misteriotsuan, iluntasunak agintzen duen une horretan, egile ingelesaren irudimenetik sortutako eskeleto xelebreekin jostatzeko aukera luzatzen dizuegu, une horretan lilura berezia hartzen baitu ipuinak.

Doerrfeld, Cori

### ***Eta untxiak entzun***

Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2021 (Txo!)

ISBN: 978-84-18252-55-6

Protagonistak Taylor du izena, eta eraikuntzak egitera jolasten da. Haietako bat, inoiz egin duen harrigarriena, behera dator bat-batean; guztiz atsekabetuta, ez daki norengana jo. Bere lagunak, animaliak, laguntzen saiatzen dira aholkuak emanaz. Oiloak horri buruz hitz egin nahi du, baina Taylorrek gogorik ez. Hartzak uste du Taylor haserretu egin beharko litzatekeela, baina mutikoa ados egon ez. Banan-banan, animaliek nola jokatu esaten diote Taylorri, eta banan-banan huts egiten dute kontsolamendua ematerakoan. Harik eta untxiak konponbidea aurkitu

arte. Lagun on gisa, mutikoaren ondoan eseri, bere denbora errespetatu, eta, azkenean, gainerako animaliek egin ez zutena egiten du: ENTZUN!

Inguruan ditugun horiei nola lagundu eta haien mina nola arindu kontatzen digu istorio soil eta xarmant honek. Enpatiari eta entzuten jakiteari buruzko hausnarketa unibertsala ere bada. Txiki-txikitatik hitz egiten irakasten digute, eta zorte handiena dutenek komunikazio-tresna onak eskuratzen dituzte. Komunikatzen jakitea eta iritzia ematen jakitea funtsezkoak dira gaur egun. Baina gizarte honek entzuteko ahalmena ahaztu du. Denok hitz egiten dugu, iritzia ematen dugu, eta uste dugu zenbat eta ozenago hitz egin orduan eta gehiago baloratuko gaituztela. Baina egia al da hori? Agian, zarata besterik ez dugu ateratzen. Entzuteak isiltasuna eskatzen du, arreta jartzea, beste pertsonaren erritmoak errespetatzea. Gaur egungo gizartetik oso urrun dauden kontzeptuak. Horregatik da hain gomendagarria ipuin hau, ENTZUTEA funtsezko elementutzat aldarrikatzen duelako pertsonen arteko harremanetan. Metafora zoragarria, haurrekin irakurtzeko aproposa eta helduei ere aplika dakiekeena.

Bikain ilustratua, dotoreak dira Doerrfelden binetak, koloretsuak eta oso adierazgarriak. Liburuaren testu urria nabarmendu eta balioesten dute, eta irakurleari istorioaren mezua hobeto ulertzen laguntzen diote.

Irakurle guztien bihotza ukituko duen istorio ahaztezina, zalantzarik gabe!

Goffin, Josse

**O!**

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021

ISBN: 978-84-9172-241-0

Hitzik gabeko album hau 1990eko hamarkadaren hasieran argitaratu zen, eta orduetik hona erreferente esanguratsua bilakatu da haur- eta gazte-literaturaren historian.

Gauzak ez dira beti guk uste duguna, ideia horretan datza liburua. *O!* hitza edo esamoldea sorpresa bat hartzen dugunean esaten dugu, eta irudidun album hau sorpresaz beterik dago. Hitzik gabeko liburua izan arren, hainbat irakurketa narratibo eskaintzen dizkigu. Txikienek orrialde bakoitzaren atzean zer ezkutatzen den asmatu beharko dute, eta ezusteak ziurtatuta daude. Irudimena eta harridura eskutik doaz liburu honetan.

Album honek, gezurra badirudi ere, asko jaso du ahozketasunetik, eta, hori dela eta, liburuaren irakurketak helduarekin hartu-eman, jolasa eta elkarrizketa sustatuko ditu. Goffinek sortutako irudiak magikoki eraldatzen dira, eta gutxien espero dugun horretan bilakatzen dira. Modu horretan, hasieran ikusten denarekin eta hegalean atzean ezkutatzen denarekin jolasa sortzen da. Irudiak elkarrekin kateatzen doaz, eta ezustean azaltzen den irudiak hurrengo orrialdeko irudi printzipala aurreratzen du; era horretan, ipuina zirkular bilakatzen da.

Ilustrazioak oso egokiak dira haur txikientzat. Oso definituak daude atzealde zuri baten gainean, eta inguruko marra beltzek sinpletasun hori nabarmentzen dute.

Liburu harrigarria eta irudimentsua, alaia eta haurren irribarrea sorrarazteko aparta. Magritte margolari handiak esaten zuen bezala, pipa bat ez da beti pipa bat.

Hernández Sevillano, David

***Zebraren euritakoa***

Ilustratzailea: Anuska Allepuz

Itzultzailea: Maialen Mujika

Madrid: Nubeocho, 2021

ISBN: 978-84-18133-86-2

Urtaro lehorra amaitu berri da sabanan, eta zebrak zerura begiratu eta bere koloretako euritakoa ireki du. Zaparrada ari du, eta gazela gerturatu da babes eske. Errinozeroa eta elefantea etorriko dira ondoren, eta, hori gutxi balitz bezala, erbia eta bere familia ere bai.

Aterki azpian animalia mordoa dago, eta desastrea badatorrela sumatzen da, ez dira denak sartzen; eta, hori gutxi balitz bezala, lehoia hurbildu da. Irudi alai eta koloretsuekin bikain islatzen du tentsio-momentu hori Anuska Allepuzek, eta ilustrazioak testuaren ezinbesteko euskarri bihurtzen dira.

Poliki-poliki pasatuko du orrialdea umeak. Lagun eta ez hain lagun diren animalien talde sinpatiko horren konfiantza du; baina, hala ere, ez du dena ondo joango den erabateko ziurtasunik.

Testu labur eta irudi adierazkorrekin umeen arreta bereganatuko du album honek. Lagun talde heterogeneo horren konplize bihurtuko da umea, eta gogotsu desioko du bukaera zorionsua izatea. Koloretako euritako baten bueltan, bai eskolan, bai etxean ozen kontatzeko istorioa idatzi du David Hernández poetak txikientzat. Zalantzarik gabe bihurria eta dibertigarria, gure gizartearen isla.

Zoboli, Giovanna

***Krokodiloa***

Ilustratzailea: Mariachiara Di Giorgio

Tafalla (Nafarroa): Txalaparta, 2021 (Txo!)

ISBN: 978-84-18252-74-7

Krokodilo jaunak baimena eman digu bere intimitatean sartzeko, eta, horri esker, aukera daukagu harekin egun arrunt bat bizitzeko haren etxean eta hirian: jaiki, komunera joan, garbitu, dotore jarri, gosaldtu, bizilagunak agurtu, metroa hartu, erosketak egin, loreak oparitu neska bati, saunara joan...

Pasarte bakoitza xehetasun ugariarekin deskribatuta dago; hain aberatsak dira xehetasun horiek, ezen gelditu baikaitezke soseguz denbora luzez ilustrazio bakoitzean, begiratzen, usaintzen, ukitzen, entzuten.

Hirian hainbat jende bizi da, eta, tarteka, gizakien artean animaliaen bat agertzen da: hartza edo txerria, edo tximinoa... Adi baldin bagaude, haien presentziak pistaren bat eman diezaguke.

Hitzik gabeko album honetan, isiltasunak esnatuko dizkigu zentzumenak, eta narrazioan eta pasarte bakoitzaren aberastasunean eta ñabarduretan kontzentratuko gara. Ez gara aspertuko album zoragarri honekin! Behin eta berriz pasatzen ditugu orriak, eta behin eta berriz gelditzen gara liluratuta.

Narrazioa oso aberatsa eta konplexua da, eta interpretazio desberdinak egiteko aukera ematen digu. Irakurleari dagokio hori egitea!

Autoreen lana bikaina da (ideia, ilustrazioak, proiektu grafikoa eta maketazioa), eta Txalapartak opari ederra egin digu Italiatik ekarritako obra honekin.

Gozatuko dugu albumarekin, txikia izan, ez hain txikia izan edo heldua izan.

## 6 urtetik aurrera

Bilbao, Leire

***Barruko hotsak eta beste soinu txiki batzuk***

Ilustratzailea: Maite Mutuberria

Arre (Nafarroa): Pamiela, 2021

ISBN: 978-84-9172-250-2

Pamiela argialetxeak iragartzen digun lez, liburu honek jarraipena ematen dio Leire Bilbao *Piztipoemak* eta *Xomorropoemak* (Euskadi Saria 2017) liburuekin haur-poesian irekitako bideari.

Orduan, piztiak eta zomorroak ziren olerkien protagonistak. Honetan, inguratzen gaituzten eguneroko soinuak dira. Oso elementu xumeez baliatu dira Leire Bilbao idazlea eta Maite Mutuberria ilustratzailea, orain ere, poema-bilduma eder hau osatzeko.

Haur bati egun batean esnatzen den momentutik oheratu arte laguntzen dioten eguneroko soinuak eta irudiak dira protagonista eta aitzakia liburu honetan. Esnatzen denean, tripak edo giharrek ateratzen dituzten soinuak, gosaltzen ari den bitartean edo arropak janzten dituen armarioak ateratzen duen zarata. Baina, era berean, etxetik irten eta bidean doanean, idaztera doanean, pentsatzen hasten denean edo bizi dituen sentimenduak erakutsi nahi dizkigunean ere, askotan oharkabean entzun eta sortzen ditugun soinuen katalogo zabala aurkituko dugu.

Hamar kapitulutan banatu dute egileek haurren eguneroko errutina: 1. Esnaera, ixo!, 2. Gosariko doinuak, 3. Bainugelako musika, 4. Arropen durunda, 5. Bideko rock and rolla, 6. Mahaia, aulkia eta arkatzen jazz, 7. Esna egiten diren ametsen sinfonia, 8. Klean punk, 9. Etxeko zaratotsak eta 10. Lotara joan aurreko kantua.

Poemak oso irudidunak dira. Poema bakoitzean irudi bat ikusten da, eta soinu bat entzuten da, baita barrurantz irakurtzean ere. Maite Mutuberria ilustratzailearekin egileak proposatzen dizkigun olerkietan, grafiak eta testuaren konposizioak erabateko protagonismoa dute, eta ulertzeko beharrezkoa dugu zenbaitetan osotasun horrekin jokatea. Kaligramak erabiltzen dituzte (ia olerki gehienekin), letrekin irudiak irudikatzen: letrek forma bereziak hartzen dituzte, letren tamaina txikitik handira olerki berean handiagotze-efektua lortzeko; bestetan, hitzak edo letrak erori egiten dira testuan zehar, edo uhinak sortzen dituzte, esaldiek bihurtune-forma hatzen dute, edo aho bat irudikatzen dute.

Ilustratzaileak, gainera, liburuan zehar eta olerki artean irudi txikiz apaintzen ditu berauek, edo kapitulu desberdinak aurkezteko bi orriko irudi eder eta iradokitzaileak eskaintzen dizkigu ulermena errazteko eta jolaserako ezin aproposagoak suertatuko direnak. Lan borobila dugu *Barruko Hotsak*, Pamielak edizio paregabeaz azaleratu duena. Haurrak bere kabuz edo helduak lagunduta irakurriko du, eta soinu, irudi eta letraren bidez kalitatezko literaturarako ezinbesteko igarobidea eskainiko dio haurrari.

Gibert, Marina

**Oihana**

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021

ISBN: 978-84-9172-246-5

Album Ilustratuentzako XIV. Nazioarteko Compostela sarian saritutako lana, hitzik gabe eta irudien bidez bakarrik, haur baten ibilbide dibertigarria —ustekabeko aurkikuntzez betea— kontatzen duen albuma da.

Egilearen proposamena album bat sortzea zen, hitz bakarra izenburua izango zuena. Egileak horrela dio: «Hasieran ez nuen istorioari buruzko ideia zehatzik, eta hasi nintzen landareak eta animaliak marrazten. Horri buruzko ideia solteak zirriboratu nituen, eta hari narratibo batean pentsatzen hasteko balio izan zidaten irudi batzuk agertzen hasi ziren».

Hitzik gabeko liburua denez, eta irakurketa-geruza bat baino gehiago izan ditzakeenez, baliteke irakurle bakoitzak istorio bat aurkitzea. Baina, oro har, liburuak haur baten begietatik oihanean sartzeraren gonbidatzen gaitu, eta ustekabeko elementuekin topo egitera; eta dirudiena ez da protagonistak aurkituko duena.

Ilustrazioari eta koloreei buruz, Giberten esanetan, koloreak intuizioz aukeratu zituen fantasiatzeko oihan baten bila, errealtatearekin jolastuz: tigrea urdina da edo palmondoak arrosak; tamainak ere distortsionatu egiten ditu, eta proportzioak apurtu.

Bidaia horretan, haurrak ate bat aurkitu du, eta oihanetik hirira sartu da, leku gris eta hotz batera... Hirian soilik etxetxo gorri bat, babesleku moduan. Etxe gorriak oihanaren eta hiriaren arteko unitatea egiten du, eta haurraren aurreko esperientzia osoa integratzen du. Protagonistak, azkenengo ilustrazioan, leiho batetik kontenplatu du oihana hirian integraturik.

Oihana bizitzaren metafora izan daiteke: ibiliz deskubritzen dugu mundua, eta agerian agertzen denak beste errealtate batzuk ezkutatzen ditu. Bestalde, hiria, oihanaren hain «etsaia» dena, bizitzeko babesleku bihurtu daiteke, eta gure fantasien eta koloreen espazio.

Hitzik gabeko album hau konplexua da, eta hainbat irakurle eta irakurketa anitzak onartzen ditu.

Zenbat eta gehiago irakurri, begiratu, pausatu orri bakoitzean, aberasten doa irakurketa. Ezin da presaka irakurri; sosegua oso onuragarria da istorio eta proposamen artistiko honetan murgiltzeko.

Album ederra da, eta, irakurlearen heldutasunaren, edo sentsibilitate artistikoaren, edo irudimenaren garapenaren arabera, horrelakoa izango da irakurketa, anitza eta erritmo desberdinekoa.

Interpretazioa librea izanik, itxaropen handiko proposamen moduan irakur dezakegu, non naturak leundu eta berotuko baitu hiria.

Ofogo, Boniface

***Kandinga lehoia***

Ilustratzailea: Elisa Arguilé

Itzultzailea: Manu López Gaseni

Arre (Nafarroa): Pamiela; Pontevedra: Kalandraka, 2021

ISBN: 978-84-9172-211-3

Kandinga lehoia oso ezaguna da Afrikako kontinentean. Izan ere, Kamerun erdialdetik Hegoafrikarainoko sabanetan eta oihanetan bizi den Bantu herriaren ahozko tradiziotik jaso du Boniface Ofogo egileak honako istorio hau.

Afrikarrek diote Kandinga lehoia oso lehoi gaiztoa dela. Deabrua baino gaiztoagoa! Lagunik ere ez du, hain baita krudela eta ahaltua. Baina zahartu egin da, eta gaixorik dago. Kosta egiten zaio bere bazka ehizatzea.

Zorioneko egun batean, handik gertu dabilen erbi bat berataz errukituko da, eta ehizatzen lagunduko dio. Gajoa! Uste baino lehen, lehoiaren zikoizkeria eta berekoikeria azalduko dira, eta, horren ondorioz, merezi duen bukaera baino ez du hartuko oihaneko erregeak.

Egitura klasikoa duen ipuin bat, alegia baten itxura duena, hain zuzen ere. Txikiekin irakurtzeko aproposa, kontakizunak eta irudidun liburu honek dituen koloreek Afrikara eramango baikaitu. Aukera ederra urruneko lurralde eta kondairak ezagutzeko.



## **10 urtetik aurrera**

Landa, Mariasun

***Julieta, Romeo eta saguak***

Ilustratzailea: Asun Balzola

Donostia: Erein, 2021 (Auskalo; 62)

ISBN: 978-84-9109-593-4

Sagu gozozale batzuk oso gustura bizi dira Julieta mokofinaren etxean. Baina, egun batean, egoera erabat aldatu egiten da: Julieta maitemindu, argaltzeko dietak egiten hasi eta ikasle fin bihurtzen da. Goseak eraginda, saguak egoera larri hori aldatzen saiatuko dira...

Hori da Mariasun Landaren liburu honetan kontaktzen zaigun istoriotxoaren ildo nagusia. Hamaika kapitulutan, protagonistak bizi duen egoera berria azaltzen zaigu, saguen ikuspegitik. Kapitulu bakoitzaren izenburua galdera bat da, eta erantzuna saguen bizipenetatik dator: «Zer da sagu tontoa izatea? Katutzarra ondoan egon eta ezer ez usaintzea». «Zer da filosofia? Dagoenean bon-bon, ez dagoenean egon». «Zer da kuriositatea? Norberaren zulotxotik ateratzea».

Sagu taldea zoriontsu bizi da Julietaren etxe zahar baina dotorean. Sukaldari bikaina eta gozozalea denez Julieta, bapo jaten dute egunero, neskak utzitako hondarretatik. Baina paradisua betirako ez denez, Julietaren bizitzan zerbait aldatzen da, eta saguek horren ondorioa jasango dute. Egun batetik bestera, bere jan-ohituretan aldaketak igartzen hasten dira; tarten orde, barazkiak eta saguentzat hain erakargarriak ez diren jakiak prestatzen ditu Julietak. Zer gertatzen da? Ezin dute ulertu aldaketaren zergatia. Bitartean, Julietak ispilu aurrean bere burua ikusten duenean, ez du atsegin ageri dena.

Mariasun Landak, aurreko hainbat kontakizunetan egin duen erara, umorea eta ironia bitarteko, gizartean errotuta dauden emakumeen inguruko aurreiritziak ukitzen ditu. Bestalde, Asun Balzolaren ilustrazioek aberasten dute narrazioa. Kapitulu bakoitzean marrazki esanguratsu batek betetzen du orrialde oso bat. Irudi argi, ulerterraz eta koloretsu horiek borobiltzen dute istorioa, irakurlearentzat erakargarriago bihurtuz. Aukera aparta eskaintzen digu liburu honek kontaktzen digun istorioarekin disfrutatzeke eta bikain pasatzeko.

## 14 urtetik aurrera

Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda

**Zerak**

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-69-0

Yolanda Arrietaren liburu berria esku artean edukitzean sentitzen dugun lehen inpresioa harridura da. Azal soil-soila, aurpegirik ez duen pertsona baten irudia, eta *Zerak* titulu gisa. Zer esan nahi du *zerak* hitzak? *Zera* hitza erabiltzen dugu ez dakigunean oso ongi zer hitz erabili zerbait izendatzeko, zehatz-mehatz azaldu ezin izaten diren emozioei erreferentzia egiteko. Kasu konkretu honetan, gaztetxotan desberdin sentiarazten gaituzten zera horiez ari da *Zerak*.

**Liburuko protagonista**, Herrialde Miresgarriko Aliziari keinu bat eginez, Alixi (Axi) izeneko nerabea da. Axi letrazalea da, eta bere bizipenak kontatzen ditu idatziz, testu laburren bitartez: oroitzapenak, poematxoak, irudikatu eta amestutako kontuak, eta baita liburuan aurrera egin ahala, indartuta, neurrira egindako planak ere.

Axik bere gabeziak, mesfidantzak eta beldurrak azaleratzen ditu; bere mundu-ikuskerak, eguneroko gertaerak eta zerak kontatzen ditu atal bakoitzean. Axiren mudantzaren lekuko gara: ipuinetako otsoekiko izua baztertu eta bera otseme izatera igaroko den garaia; nondik gatozen ulertzen hasi eta besteengandik desberdin sentitzen den nerabea. Axik aurrera egiten du beti, eta liburuaren bukaerarako beste bat izango da. Bitarte horretan, salto bat eman du: nerabezeroari agur esan dio, eta aldi berriari kaixo.

Arrietak, barruko sentimenduak irudikatzeko, animaliak erabili ditu: otsoak, ardiak, txakurrak, behiak edo sugeak. Askotan, «okupa» moduan azaltzen dira, gure barruko alde basatia erakusteko; edo askatasuna, mendekotasuna eta halakoak azaltzeko; edo pertsonaren emozioak zein gizartean gertatzen diren gauzak formulatzeko, ia fabula batean bezala.

Liburuaren barruko aldean piktogramak gaineratu ditu testuei laguntzeko, gutxirekin asko esan nahi izan du-eta. Piktogramak jolaserako bide ere izan daitezke.

Zaila da hitz batean liburuaren generoa zehaztea, hibridoa baita: testu batzuk mikro-ipuinak dira, beste batzuk elkarriketak, olerkiak, narrazio poetikoak edo poesia narratiboak... Ez da derrigorrezkoa testuak jarraian irakurtzea, solte ere irakur daitezke; baina, jarraian irakurriz gero, azpian badago hari bat, liburua nobelatxo bihurtzen duen haria.

Arrieta forma eta baliabide berriekin esperimentatzera ausartu da, askatasunez, idazteko modu asko daudela erakutsiz. Eraitza liburu desberdin, iradokitzaile, arin, erakargarri bat izan da. Zortea da bera bezalako emakume idazleak izatea, beren lanarekin euskal literatura aberasten baitute. Euskal literaturaz gozatzera gonbidatzen zaituztegu!

Meabe Plaza, Miren Agur

***Itsasoaren atea***

Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga Otamendi

Donostia: Elkar, 2021

ISBN: 978-84-1360-064-2

Ama hiltzerakoan, Elora Duval neskato umezurtza Ubarroien uhartera eramaten dute amonarekin bizitzera. 1870. urtean gaude, ozeano Atlantikoko punturen batean. Protagonistak lehenengo astean biziko dituen abenturak kontatzen ditu eleberri honek, eta berari esker aspalditik ezkutuan zeuden familia arteko sekretuak azaleratuko dira.

Literatura erromantikoaren elementuak batu ditu Meabek istorio honetan: kondairak, abenturak, intriga, misterioa, sekretuak, amodio ezkutuak, eta hori guztia XIX. mendeko itsas eta nekazari-ingurune urruti batean girotua. Bistan denez, azken urteetan gazteentzako ohiko bilakatu den gaur egungo genero errealistatik urrun dago nobela hau, eta horretan datza gure ustez bere balioetako bat.

Istorioak poliki-poliki egiten du aurrera, mantso, baina etenik gabe. Hizkuntzarekin gozaten du idazleak, eta euskararen aberastasuna agerian uzten du esaldi bakoitzean. Irakurleak ere horrela gozatu beharko du liburua, soseguz, testuan erreparatuz eta itsas aldean erabiltzen diren hitz berriak ezagutuz uneoro. Hala ere, euskara jasoak ez du irakurketa zailtzen, eta irakurle gazteak arazo handirik gabe murgilduko dira maisutasunez eratutako trama honetan.

Eleberri honekin Mikel Zarate Haur Literaturako saria irabazi zuen Miren Agur Meabek, Maite Gurrutxagaren ilustrazioekin.

Sierra i Fabra, Jordi

***Malkoak euritan***

Itzultzailea: Ramon Olasagasti

Donostia: Elkar, 2021 (Traola; 02)

ISBN: 978-84-1360-077-2

Jordi Sierra i Fabrak ibilbide luzea du literaturaren munduan. Batik bat, gazte-literaturaren esparruan gauzatu du jardunbide gehiena, baita hainbat sari jaso ere. Honako honekin, «Lazarillo saria» irabazi zuen 2019. urtean jatorrizko edizioan.

Aipagarria da egileak musikarekiko duen zaletasuna, eta hainbat liburutan islatzen da hori; hala nola, gaur dagokigun honetan, *Malkoak euritan* eleberrian, alegia. Bertan, Leo Calvert musikariaren heriotza jorratzen da, heriotza misteriotsua, hasiera batean bere buruaz beste egin ote zuen pentsatzen baitzuten denek. Baina lehen urtemuga hurbildu ahala, heriotzaren inguruko benetako arrazoiak azaleratuko dira, halabeharrez. Erreferentzia askotarikoak darabilzki egileak, eta horren adibide garbia da eleberriaren izenburua bera,

honela baitio: «Argitaratuko al dira inoiz? Galdu egingo ote dira Blade Runner filmeko beste pasarte hartan malkoak euritan galdu ziren moduan?». Argi dago egilea eroso sentitzen dela musikarien eta horien liskarren ingurumarian; baina, esparru horretatik harago, maisuki landuak daude elementu misteriotsuak, eta, batik bat, pertsonaien arteko gatazkak: bereziki, Grace eta Rebeca ama-alaben artekoak, zein Graceren eta Normanen artekoak. Beren arteko inkomunikazioa eta beldurrak ederki garatuko ditu egileak, eta, horrela, hainbat geruza metatuko dira liburuan zehar: alde batetik, Leoren heriotzaren ingurukoak, eta, bestetik, pertsonaia ezberdinen arteko liskar eta gatazken artekoak.

Aipatzekoa da, baita ere, egileak duen maisutasuna erritmo egokia garatzeko. Kapitulu motzetan zehar, gure atentzioa eta jakinmina bereganatzea lortuko du, misterioaren nondik-norakoak argitze aldera. Ezin alde batera utzi Ramon Olasagastiren itzulpen egokia eta zuzena, ederki lortu baitu istorioaren bizitasuna islatzea. Egile katalanak, beste behin ere, eleberri erakargarri eta zirraragarria gorpuztea lortu du irakurle gazte zein helduen gozamenerako.

## Zerrenda berezia

Alberdi, Uxue

### **Hili**

Ilustratzailea: Aritz Mesanza Iturritxa

Donostia: Elkar, 2021

ISBN: 978-84-9027-764-5

Heriotzaz edo hiltzeaz ez da berba egiten, isildu egiten gara, eta, iluntasun horretan, erraza da huts egitea. Uxue Alberdik eta Araiz Mesanzak, ordea, ausardiarekin heldu diote gaiari, eta iluntasun hartatik atera dute heriotza, erlijio-, kultura- edo ideologia-ikuspuntuak alde batera utziz. Liburuaren ahotsak ume bat eta bere panpina dira.

Jakinmina eta irudimena gidari izan dituzte album hau osatzeko orduan. Eta jolasa, noski, haurren modu naturala errealitatera gerturatu eta ulertzeko. Hala ere, lan hau ez dago haurrei mugatuta; azken finean, bizirik gaudenok ez dugu esperientzia hori izan, eta ezagutza ezak gure irudimenezko eremuan bilatzera eramaten gaitu, sormenean murgilduz.

Galderak, dialogo laburrak, kaligramak eta poesia dira misterio honetan sakontzeko erabiltzen dituen elementuak. Modu jolastian gerturatuko gara gaira, eta horrek, liburua erakargarri bihurtzeaz gain, liburuan zehar askatasunez ibiltzera eta burutazio propioak izatera eramango du irakurlea.

Liburuaren estetikari dagokionez, zuria da nagusi, eta horrek arnasa eta lasaitasuna (bakea?) ematen dizkio albumari. Araiz Mesanza irudigileak arkatzen beltzarekin marraztu du protagonista, eta brotxa grisarekin bere laguna. Beren proportzioekin jolastu du, heriotza ikuspuntu desberdinetatik begiratuz.

Album eder honekin, bai umeek eta bai helduek aukera bikaina dute misterio honen inguruko beldur, uste eta itxaropenen inguruan gogoeta egiteko. Intimitatean edo taldean, modu lasaian eta paradoxikoki bizitasunez heriotzara gerturatuko gara, oraina gogotsu hartuz.

De Brunhoff, Jean

### **Babarren bidaiak**

Itzultzailea: Uxue Rey Gorraiz

Rubí (Bartzelona): Picarona, 2021

ISBN: 978-84-9145-474-8

Babar elefantea haur-literaturako pertsonaiarik maitatuenetako eta ezagunenetako bat da. Jean de Brunhoff (1899-1937) idazle eta ilustratzailea frantsesa izan zen bere sortzailea, 1931n bere lehen istorioak argitaratu zituen. Egia esan, ideia haren emaztearena, Cecilerena, izan zen; gauero-gauero kontatzen ziren istorioen bat beren seme-alabei, eta Babar elefantetxoarena izan zen haietako bat. Brunhoffek zazpi liburuxka argitaratu zituen Babar protagonista zela; orain irakurri duguna bere bigarrena izan zen.

Ipuin hauek behar bezala baloratu ahal izateko, kontuan izan behar dugu egilearen testuingurua: bizi zen garaia eta herrialdea, XX. mende hasierako Frantzia koloniala, hain zuzen, non nabaritzen baitziren burgesia, familia oso tradizionala eta emakumearen bigarren mailako rola.

Babar elefantea gaztea zela, ehiztari gupidagabe batzuek bere ama hilko dute, eta momentu horretan erabakiko du mundua ezagutzera joatea. Jendea bizi den hiri batera heltzen da, eta hemen hasten da bere eraldaketa. Adineko andre baten laguntzaz elefantea hazi egiten da, gizakiak bezala arropak janzten ditu, bi hanken gainean ibiltzen da, jakintsu bihurtzen da... eta, momentu batean, oihanera bueltatzen da.

Oraingo honetan, Babar errege bihurturik, bere emazte Celesterekin ezteibidaian doa. Elefanteek globoan hasiko dute abenturaz beteriko bidaia. Kanibal batzuekin egingo dute topo, zirko batean lan egin beharko dute, eta, azkenik, beren herrira bueltatuko dira errinozeroei modu adimentsu eta baketsuan aurre egiteko.

Babarren pertsonaia, nahiz eta elefante handia eta printzipioz hain goxoa ez izan, bere nortasunagatik eta bere jokatzeko moduengatik, oso maitekorra eta hurbila egiten zaie hurrei. Segurtasuna, zintzotasuna eta sinpletasuna transmititzen ditu, eta liburuek hasierako arrakasta bera izaten jarraitzen dute.

Lehen aipatu dugun bezala, ipuinaren ilustrazioak Brunhoffek berak eginak dira. Irudiak, oso koloretsuak eta xehetasunez beteak, testuarekin tartekatzen dira orrialde bakoitzean, eta istorioarekin oso ondo uztartuak daude. Batzuek orrialde biak hartzen dituzte, kontakizunari asko lagunduz.

Azken finean, ipuin ederra, protagonista xarmagarriak eta ilustrazio gozoak eta aberatsak dituen, irakurketaz behar den bezala gozatzeko.

Igerabide, Juan Kruz

***Motx-motxean. Aforismoak hasiberrientzat***

Ilustratzailea: Koldobika Jauregi

Berriozar (Nafarroa): Denonartean, 2021

ISBN: 978-84-17940-64-5

***Zer da aforismoaren egia?***

***Esaten hasi, eta amildegia.***

Aforismoa definitzea ez da samurra. Pentsamenduaren flash bat da aforismoa, bizitzaren misterioetako bat laburbiltzen duen suspirioa. Hitz gutxirekin hedadura handiko kontu sakona laburbiltzeko, laburrean luze esateko ahalegina. Helburua filosofikoa izan arren, hizkera poetikoa baliatzen duen genero literarioa. Aforismoa inteligentziaren emaitza da, hitzetan emandako sententzia labur bat. Baina ez da hori bakarrik. Aforismoa sentiberatasunaren emaitza da, bat-bateko argi-txinparta baten efektua. Aforismo on bat edertasunaren emaitza da, orenen gainetik.

Juan Kruz Igerabideren hitzetan: «Aforismoa pentsamenduarekin jolas zintzo-gaiztoan dabilen esaldi labur zorrotza dela esan daiteke, nolabait hartara hurbiltzeko. Balio izan du arauak emateko, balio izan du arauak hausteko; balio izan du gida gisa, balio izan du arrastotik nola irten burutzeko».

***Motx-motxean hitz eginez, denbora gehiago geratzen da jolaserako.***

Eta horixe da liburu honen helburuetako bat: hitzekin jolastea. Igerabidek ironia eta metaforen bidez gai sakon batzuei buruz hausnartzera eramaten gaitu batzuetan; beste batzuetan, berriz, umorearen bidez, hizkuntzarekin jolasteko aukera ere badagoela erakusten digu.

Mota guztietako aforismoak irakur daitezke, haur eta gazteen egunerokotasuna oinarrian: eskola, gurasoak, zoriontasuna, beldurra, demokrazia, gaixotasuna, haurtzarora, besteak beste. Gehienetan, gogoeta egitera gonbidatzen gaitu egileak. Jarrera kritikoa du, baina era samurrean egina.

***Demokrazia zer den? Sagarrak elkarren artean banatu, eta zer zapore duten ados ez jartzea.***

Espazioak leku garrantzitsua du liburuan. Irakurketaren eta hausnarketaren artean dagoen espazioa edo arnasa. Irakurtzeko erritmoak ere tarte bat izan behar du (ez da tirada batean irakurtzen den nobela edo ipuin bat). Adierazgarria da liburuko orrialde askoren zuriunea. Literatura eta eskultura uztartuz, espazioaren maisu bat izan da, Koldobika Jauregi eskultorea hain zuzen, tinta beltzez egindako irudiekin liburua osatu duena. Irudi indartsuak, surrealistikak, iradokitzaileak.

***Buruan egosten dira ametsak. Batzuetan, kiskali egiten dira.***

Igerabidek, liburu honekin, tresna ezin hobea eskaintzen digu ametsak erre ez daitezen eta pertsona gisa hazteko. Txikienez eta nagusientzako liburua. Adinik gabeko liburua. Tarteka irakurtzeko liburua; bakardadean edo lagunduta. Bizitza hobeto ulertzeko liburua.